

Gipuzkoako monje eta fraideak

La historia de los Institutos Religiosos masculinos en Gipuzkoa (siglos XVI-XVIII) ofrece una gran similitud con la de Bizkaia, en cuanto a la inexistencia de un verdadero monacato medieval y el posterior protagonismo de las Ordenes Mendicantes, juntamente con la Compañía de Jesús. En todo caso, es el último de los Territorios Históricos en dotarse de Conventos masculinos.

Erlijioso-Erakunde hauen Gipuzkoako historia erdiarotarra Bizkaikoaren antzekoa izan zen: monjerik gabeko historia. Eta Eskeko fraideen Komenturik ere ez zen ireki Gipuzkoan ia XVI. mendea arte; horretan Bizkaiaik aurea hartu zion XIV-XV. mendeetan.

Kanpoko Monasterioak Gipuzkoan

Erdi Aroan Monasterio edo Kolegiata agustindarrak ez izateak ez du esan nahi, ordea, kanpoko Monasterioek Gipuzkoarekin zer ikusirik izan ez zutenik. Hain zuzen, Gipuzkoaz ari diren lehen agiri zaharrenak Nafarroako edo erbesteko Monasterioekin zerikusia zutenak dira.

Honela, "Gipuzkoa" (*Ipuscua*) izena lehenengo aldiz eman zigun agiria Aragoiko San Juan de la Peña-ko Monasterioari Olazabal-Altzoko Salbatore eliza eskaintzean agertzen da (1025). Hortik aurrera Nafarroako eta Errioxako Monasterioen presentzia errepikatuz azalduko da Gipuzkoatik haiei dohaintzak egitean: Leintz (1080, 1087), Astigarribia (1080-86), Donostia (1101) edo Abaltzisketan (1134). Horrela, eliza eta ondasunen jabe egiten ziren hemen Errioxako Donemiliaga, Nafarroako Leire eta Irantzuko Monasterioak.

Jabetza horrek, ordea, ez zuen esan nahi derri gorrez Monasterio haiek hemengo toki horie-

tan monjeak bizitzen eta zerbitzatzen jarri zituztenik. Ez dut, behintzat, halakorik gertatu zeneren albisterik, posible bada ere. Beneditarrak ez egon arren, esan beharra dago Gipuzkoak bere sanjoandarrak izan zituela Tolosako Arramelen eta Donostiako Sta. Katalinan, eta Orreagarena izan zela Zumaiako Sta. Maria (XIII.ekoa; gero-ko San Pedro); bestalde, premontretarrena izan zen Hondarribiko Santiago Ospitalea (1429). Besterik esan den arren, tenplarioen engomenda edo monje-edoitza dokumentaturikez dugu eza gutzen Gipuzkoan.

Eskeko fraideen etorrera (XVI. mend.)

Komentu kontutan Gipuzkoak zuen atzerape-na gaintitzeko balio izan zuen XVI. mendeak, eta mende hura pasatuta gero Probintziako Eskeko Ordenetako fraide-etxe sortu berrien albistea emateko aukera izan zuen Isastik 1625ean, *Compendio Historial* zeritzan hartan: 32 Komentu-Etxe guztietako 12 ziren gizezkoenak orduan.

Hain emankorra gertatuko zen XVI. mende haren aurreko hamarkadan, herri guztietatik urrun zegoen Santutegi batean landatu zen Gipuzkoako lehenengo fraide-komentua: Arantzazun. Eta ez ziren izan frantziskotar fraideak bertara etorri ziren lehenengoak, mesedetakoak



baizik, Bizkaiko Burtzeñako Komentutik zetozenak (1493-1498). Hauek bertatik joatean, ez zen erraza gertatu Gipuzkoako lehenengo fraidearteari etorkizun finkoa segurtatzea, harik eta frantziskotarrek Komentua beretzat hartu (1501) eta berori auzitan irabazi zuten arte (1514).

Dena den, handik hasita, hurrengo bi mendeetako lana izan zen Gipuzkoako erlijioso-etxeen kopurua osatuz joatea, baina ez gizartearen eta agintarien laguntza edo erresistentziarik gabe, denetik egon baitzen tartean. Komentu bat ireki nahi zen bakoitzean, ezinbestekoa zen inguruetakoa herriek bizitzen nola lagunduko zioten begiratzea, eta hori tokian tokiko lehenagoko Komentuei kalterik egin gabe. Horregatik ere, esate baterako, frantziskotarrek (1606) eta jesulagunek (1623) ez zuten izan samurra Donostian sartzea.

XVII. bukatzean gizonezkoen 19 Erlijioso-Etxe zeuden Gipuzkoan. Frantziskotarrek 7 Komentu zituzten (Arantzazu eta Tolosakoak nagusienak) eta Jesulagunek 4, Donostiako Ikastetxea eta Loiola tartean zirela. Gainerako Ordenek bana edo izan zuten. Domingotarren bietako bat izan zen Donostiako San Telmoko Komentu handia. Azpimarratzekoa da Azpeitian bertan bi fraide-komentu egon zirela, agustin-darrena eta domingotarrena.

Kaputxinoek ez zuten Donostian lekurik izan, baina goitzaribili ziren eta lortu zuten Errenterian (1612) eta Hondarribian (1663) Komentu bana irekitzea. Fraide karmeldarrek Donostian egoitzarik ireki ez bazuten ere, Okendotarrak ireki zuten bidea Gipuzkoako lehenengo Etxe bakarra Lazkaon izan zezaten (1641), izan ere

gaurko beneditarren Komentua bere sortzean karmeldarra izan baitzen.

Gogoratzekoa da, San Ignazio 1556an hil zen arren, jesulagunek ez zutela Loiolako Santutegia bere eskuetan izan askoz beranduago arte (1681). Orduan antolatu ahal izan zituzten Egoitza eta Ikastetxea Loiolan. Zerbait geroago Larramendi eta lagunek lan gaitza egingo zuten Etxe honetatik.

Erlijioso-Etxe haiek, gehienetan eliz eginkizunak zituzten, komentuko elizan bertan lehenengo eta inguruko herrietan gero (mezak, aitortzak, predikua, herri-misioak, etab.), eta sarritan Eskola-lanak ere bai, batzuetan haur eta gaztetxoekin (frantziskotarrek Donostiako Egian bezala), eta inoiz edo beste gazte helduei Filosofia edo Teologia irakatsiz (adibidez, San Telmon domingotarrak, edo Tolosako frantziskotarren San Jose Ikastetxean).

Sortutako Komentu-sareak aski hartuta utzi zuten Probintzia osoa: Kostaldean zeuden Kaputxinoen Erreterria eta Hondarribiko Etxeak, Donostiak gizonezkoen hiru erlijioso-etxe zituen; Orio, Zarautz eta Zumaian Komentu bana zeuden; barrualdeko bailaretan, berriz, Urolaldean Azpeitia zen hornituena (4) eta Azkoitiak bat behintzat bazuen, Deba arroan ez zen Komenturik falta (Sasiola, Elgoibar, Arrasate, Bergara, Oñati) eta Orialdean Tolosa eta Lazkao zeuden Komentu banarekin, eta Arantzazu ez hain urrun. Hau guztia emakumezkoen Komentu eta kapilautzekin osatzen zen, azkenik.

Joseba Intxausti

Galderak eta oharra: 610-273580